



EREMUAK | ART OMI¹ EGONALDIRAKO DEIALDIA 2018ko uda

EREMUAK BEKA ART OMI-N

eremuak programak **nazioarteko egonaldi-deialdi bat** ireki du, *Omi International Arts Center*-rekin lankidetzan, Euskal Autonomia Erkidegokoan erroldatuta dagoen edozein artista joan daiteke egonaldira, betiere aktiboki eta profesionalki lanean aritu bada azken hiru urteotan gutxienez.

Deialdiaren helburua da arte bisualen testuinguruan lan egiten duten artisten nazioartekotzeari laguntzea.

Egonaldia **2018ko ekainaren 14an**, ostegunean, hasi eta **uztailaren 10ean**, asteartean, amaituko da. Art Omi-n, Ghent-en, New York iparraldeko landa-herri batean izango da.

ART OMI-RI BURUZ

Art Omik kontinente guztietako artistak gonbidatu ditu New York estatuko landagunean biltzera, esperimentatu, lankidetzan aritu eta ideiak partekatzeko. Askotariko arte-estilo eta -jardunbideetan diharduten artistak elkartuko ditu ekimenak. Lau astez, ekaina eta uztaila bitartean, sorkuntza-lanerako denboraz gain, partaideek kultura-harremana eta ebaluazio kritikoa izango dituzte akuilu.

Eremuak-ek joan-etorriko gastuak ordaindu eta 500 €-ko bidaia-poltsa emango dio hautatutako artistari, baita onarriko osasun-asegurua ere. Estudio pribatua, partekatutako ostaldea eta doako otorduak izango ditu artistak bekaren egonaldi osoan. Denboraldi bakoitzean kritiko/komisario ospetsu bat gonbidatzen dugu Kritiko egoiliar gisa ekimenean parte hartzera. Bera arduratuko da eztabaidak moderatzeaz eta

¹ OMI International Arts Center / www.artomi.org / 1405 County Route 22, Ghent, New York 12075

banaka bisitatuko ditu artisten estudioak. Kritiko egoiliarra campusean egongo da egonaldi-programak iraun bitartean. Halaber, egonaldiko lehen astean, aurretik Kritiko egoiliar izandako lagun bat gonbidatu ohi dugu Kritiko emeritu gisa.

Egonaldiko lehen astean artistek maisu grabatzaile batekin lan egiteko aukera izango dute, monotipoen edizio bat egiteko. Artistek kalitate handiko materiala izango dute eskura.

Gure Bisitaldien programari esker, egoiliarrek hainbat arte-kritikorekin, galeria-jaberekin eta artista nabarmenekin hitz egiteko aukera izango dute. Antzeko egonaldi-programen artean geurea da New York hiriko mundu artistikoarekiko loturarik zuzenena eta sendoena duena.

Ate Irekien jardunaldiarekin amaituko da egonaldia. Bertan, ehunka profesional, artezale, bizilagun eta lagun elkartuko dira egoiliarrek egindako lana ikusteko, galderak egingo dituzte eta artistekin harremanetan egongo dira.

HAUTAGARRITASUNA: Euskal Autonomia Erkidegokoan bizi den edozein artista joan daiteke egonaldira (ezinbestekoa da errolda-agiria aurkeztea), betiere aktiboki eta profesionalki lanean aritu bada azken hiru urteotan gutxienez. Aurreko edizioetan egonaldian egon diren pertsonak ez dute aurkezterik izango. Ekimenak diziplina hauek hartzen ditu: ikusmen-artearen, soinu-artearen, performancearen eta gizarte-jardunaren barruan sartzen diren jardunbide guztiak.

Art Omik ez du onartuko gaur egun Arte Ederretako lizentzia- edo master-ikasketak egiten ari diren artisten eskaerarik. Nolanahi ere, arteen ingurukoa ez den bestelako master batean matrikulatuta egonik, gutxienez 3 urteko esperientzia profesionala duten doktoregoko ikasleen edo artista profesionalen eskaerak onartuko ditugu. **Oharra: EZ da nahitaezkoa arte-ikasketak eginda izatea: autodidakta diren artista profesionalen eskaerak onartzen ditugu.**

ESKAERA EGITEKO PROZEDURA: Eskaera esteka honen bidez bidali behar da:

<https://artomiinternational.submittable.com/submit>. (ADI EGON!! Artistek lauki bat markatu behar dute non esaten den Eremuak beka Art Omin hautagarriak direla). Honako 10 dokumentu hauek atxikita bidali behar dira, trinkotu gabe eta banaka erantsita. 10 dokumentu, ez gehiago ez gutxiago, honela antolatuta:

1. dokumentua: zure Curriculum Vitae (ezinbestekoa da helbide elektronikoa eta harremanetan jartzeko telefonoa adieraztea) eta erroldatze-ziurtagiria. Curriculum Vitae PDF edo Word dokumentua izan daiteke. Mesedez, fitxategiaren izenburua osatzeko jarri zure **abizena, izena eta resume hitza, punturik, komarik eta tarterik gabe**. **Adibidez: etxeberriajonresume.pdf edo etxeberriajonresume.doc**.

Erroldatze-ziurtagiria **PDF dokumentua** izan behar da. Mesedez, fitxategiaren izenburua osatzeko jarri zure **abizena, izena eta residencecertificate hitza, punturik, komarik eta tarterik gabe**. Adibidez: **etxeberriajonresidencecertificate.pdf**.

2. dokumentua: ORRIALDE BAKARREKO Word edo PDF dokumentua, bidali dituzun irudiei, bideoei edo soinu-fitxategiei buruzko azalpenekin. **Orrialde bat baino gehiago bidaltzen baduzu, lehenengoa bakarrik hartuko da kontuan. Mesedez, EZ erabili 11 baino txikiagoa den letra-tiporik** eta fitxategiaren izena osatzeko jarri zure **abizena, izena eta *description* hitza, komarik, punturik eta tarterik gabe**. Adibidez: **etxeberriajondescription.doc edo etxeberriajondescription.pdf**. Antolatu dokumentua bidali dituzun irudien zerrenda zenbakitu gisa, titulua, urtea, tamaina eta lan-baliabidea adieraziz. Beharrezkoa bada, azalpen labur bat erantsi dezakezu (2-3 esaldi). **Argazki-oinean, jar ezazu honako informazio hau: Titulua, Baliabideak/Materialak, Tamaina (Estatu Batuetako hazbetetan edo oinetan adierazita), Urtea.**

IRUDIAK BIDALTZEN BADITUZU:

3. dokumentutik 10.era: Zortzi (8) JPEG irudi; horien bereizmena: 72 PPP; bakoitzaren gehieneko tamaina: 1 MB. Irudiei izena emateko: idatzi abizena, izena eta zenbakia; komarik, punturik eta tarterik gabe. Adibidez: **etxeberriajon1.jpg, etxeberriajon2.jpg, eta abar. Ohar garrantzitsua: jpeg-ak bakarrik onartuko dira**. Mesedez, **ez bidali** PowerPoint aurkezpenik, ez PDF, TIFF, GIF edo PSD fitxategirik ere. Hori egiten baduzu zure eskaera ez da kontuan hartuko.

EDO

BIDEOAK EDO AUDIO FITXATEGIAK BIDALTZEN BADITUZU:

3. dokumentutik 5.era: Vimeora edo Youtubera igotako edo zuzenean zure web-orrian jarritako hiru (3) bideo edo audio-zatiri lotutako estekak. Epaimahaiaren betebeharra zati bakoitzeko minutu bateko tarteaztertzea izango da. Beraz, zure ardura da epaimahaiak aztertu beharreko minutua zehazki adieraztea. Epaimahaiak aipatutako minutua baino tarte luzeagoa aztertzea erabaki dezake. Denbora-tarte bat irauten duten lanen bideoak eta/edo audioak BAKARRIK aztertuko ditugu, lan interaktiboak, web arlokoak, zinetikoak, zinetatografikoak, bideoak, entzunezkoak eta performanceak egiten dituzten artistenak. **Pintura, eskultura eta/edo toki jakin batean kokatutako koadro eta instalazioak lantzen badituzu, mesedez bidali irudiak.**

EDO

IRUDIAK ETA BIDEOAK EDO AUDIO FITXATEGIAK BIDALTZEN BADITUZU:

3. dokumentutik 10.era: Vimeora edo Youtubera igotako edo zuzenean zure web-orrian jarritako hiru (3) bideo edo audio-zatiri lotutako estekak eta bost (5) JPEG irudi; horien bereizmena: 72 PPP; bakoitzaren gehieneko tamaina: 1 MB. Irudiei izena emateko: idatzi abizena, izena eta zenbakia; komarik, punturik eta tarterik gabe. Adibidez: **etxeberriajon1.jpg, etxeberriajon2.jpg, eta abar. Ohar garrantzitsua: jpeg-ak**

bakarrrik onartuko dira. Mesedez, **ez bidali** PowerPoint aurkezpenik, ez PDF, TIFF, GIF edo PSD fitxategirik ere. Hori egiten **baduzu zure eskaera ez da kontuan hartuko.**

OHAR GARRANTZITSUA: Posta elektronikora eranstean diren artxiboen tamaina guztira ezin da izan 20Mb baino handiagoa.

NAHITAEZ EMAN BEHARREKO INFORMAZIO GEHIGARRIA:

a) ARTISTAREN ADIERAZPENA: Eskaera ematean, zure lanari buruzko gehienez 100 hitzeko adierazpena ere aurkez dezazun eskatuko zaizu. **Funtsezko dokumentua da epaimahaiak zure lana osotasunean uler dezan. Zure testuak 100 hitz baino gehiago baditu ere, epaimahaiak lehen 100ak bakarrrik irakurriko ditu.**

OHARRA:

Art Omi Alumni: Ahalik eta artista gehienek aukera izan dezaten Art Omi egonaldian parte hartzeko, gure ikasleei arren eskatzen diegu ez dezatela eskatu bigarren egonaldi bat. Eskertuko genizueke Art Omin izan ez diren beste artista batzuei ekimen horren berri ematea.

Eskaera asko jasotzen ditugunez, mesedez, ziurta ezazu zure eskabidea erabat osatu duzula. Ez ditugu kontuan hartuko osatu gabe dauden eskaerak. Tamalez, hautaketa egin aurretik ez dugu izango aukerarik eskatzaile guztiei euren eskaeraren egoeraren berri emateko.

Art Omi-ko epaimahai nazioartekoa da. Hori dela eta, dokumentazioa ingelesez bidali behar da.

EGUTEGIA

- Eskaerak bidaltzeko **azken eguna: 2017ko abenduaren 15a, ostirala, gauerdia arte.**
- **Hautaketa-prozesuaren emaitza 2018ko urtarrilaren eta otsailaren tartean** argitaratuko da, Eremuak programaren web-orrian: www.eremuak.net
- Egonaldia **2018ko ekainaren 14an, ostegunean, hasi eta uztailaren 10en, asteartean, amaituko da.**

Zorte on eskaerarekin!

www.eremuak.net

ESKAERA EGITEKO:

<https://artomiinternational.submittable.com/submit>